



2016KO APIRILAREN 26KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko apirilaren hogeita seian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jaber Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Ioseba Hernandez Madinabeitia, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2016ko martxoaren 22an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- ERAIKUNTZAKO HEGALEN UDAL ORDENANTZAREN HASIERAKO ONARPENA.-

Lazkaon eraikitako eta eraikiko diren eraikinetan hegalkinek eduki behar dituzten baldintzan zehazten dituen udal ordenantza osatu da eta hirigintza batzordeak ordenantza honen onarpenaren proposamena egiten du.

Andonegi zinegotziak (EH Bildu) esaten du gaiaren mamian sartu gabe, ordenantza honen onarpena zuzitzen duen interes orokorreko arrazoirik ez dutela eta gehiago iruditzen zaiela udala beraren interesa bakarrik dela. gaineratzen du beraien egokiago ikusiko luketela AA.SS.en aldaketa bat edo Plan Generalaren barruan planteatzea honelako gauzak.

Alkateak erantzun egiten dio Andonegi zinegotziak esandakoei, honek emandako argumentuei aurka eginez.

Gaiaz eztabaidatu ondoren, bozketan jartzen da, eta osoko bilkurak, aldeko zazpi boto (E.A.J.), aurkako botorik gabe eta sei abstentzioz (EH Bildu) honako akordio hauek hartzen ditu:



- 1.- Hasierako izaeraz onartzea bere espedientean dagoen eraikuntzako hegalen udal ordenantza.
- 2.- Akordioa jendaurreko erakustaldian jartzea 30 laneguneko denboraldian, interesatuen erreklamazioak edo iradokizunak aurkez ahal izan ditzaten.

IV.- UDALAREN JABETZAKO LOKALA BESTERENTZEAREN ESLEIPENA.-

Udal Osoko Bilkurak, 2016ko martxoaren 22an egindako bilkuran, bere jabetzakoa den Elosemi 30eko bigarren solairuko 8 m²ko lokala prozedura ireki bidez besterentzeko baldintza plegua eta kontratazio espedientea onartzea eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.

Deialdiaren iragarkia 2016ko apirilaren 5eko 62 zbk.dun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta akatsen zuzenketa 2016ko apirilaren 11ko 66. zbk.dunear.

Eskeintzak aurkezteko ezarritako epearen barruan, eskeintza bakarra jaso da, Ruben Ramajo Santibañez J.k izenpetutakoa. Bere eskeintza 1.000 €koa da, hau da, lizitazio oinarriaren berdina.

hau honela izanda, besterentzearen esleipena Ruben Ramajo Santibañezen alde egitea proposatzen da.

Guzti honen aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, Elosemi 30eko 2. solairuko udal jabetzako lokalaren besterentzearen esleipena Ruben Ramajo Santibañezi egitea erabakitzen du.

V.- BERDINTASUN BATZORDEA SORTZEA.-

Alkateak esaten du aurreko osoko bilkurak esan bezala, berdintasunaren gaia lantzeko duen Berdintasuneko Batzorde Informatzailea sortzea proposatzen dela.

Osoko Bilkurak, aho batez, proposamena onartu egiten du.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hamazazpi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

